

## Elikadura-sistema oinarritik aldatzea ezinbestekoa da jasangarri izateko



ARG.: ElasticComputeFarm/Pixabay.

Desazkundearen hainbat eszenatoki simulatu, eta horiek elikadura-sisteman izango litzuketan ondorioak aztertu dituzte [Nature Food aldizkarian argitaratutako ikerketa batean](#). Zehazki, berotegi-gasen isurietan izango luketen eragina kalkulatu dute. Atera duten lehen ondorioa da egungo elikadura-sistema ez dela jasangarria, berez, edozein dela ere gizarte- edo ekonomia-eredua.


Ikertzaileek kalkulatu dute beharrezkoa litzatekeela elikadura-sistema globala errotik aldatzea. Batetik, dieta aldatu beharko litzateke, elikadura orekatuago baten alde, barazki askoz gehiagorekin eta animalia-jatorriko produktu gutxiagorekin. Bestetik, eraginkortasun handiagoz eta gutxiago poluituz ekoizti beharko lirateke elikagaiak; esaterako, ongariak gutxiago eta hobeto erabiliz. Eta, azkenik, karbonoari prezioa jartzeak ere lagunduko omen luke nekazariak emisio txikiagoko ekoizpenak lehenesten.

Kalkulatu dutenez, bide horretatik joz gero isuri neutroko elikadura-sistema bat lortu ahal izango litzateke mende honen bukaerarako; eta, bide batez, elikadura osasungarriagoa izatea lortuko litzateke. ●

## Europako hegaztien migrazioen onlineko atlasa

Europako Hegazti Migratzaileen Atlasa aurkeztu du Europako hegaztien eraztuntzeak koordinatzen dituen EURING erakundeak. Europan habia egiten duten 300 hegazti-espezieren migrazio-ibilbideak eta mugimenduak kontsulta daitezke online, [migrationatlas.org](http://migrationatlas.org) webgunean.

Lan aitzindaria da Europa mailan, ez baitago hegaztien migrazio-ibilbideei buruzko informazio hain zehatzarekin aldera daitekeen beste ekimenik. Atlas hau egiteko datuak eman dituzten bulegoen artean, Aranzadiko Eratzun Bulegoa dago.



Enaren migrazio-ibilbideak. ARG.: migrationatlas.org

Migrazio-bidaiez eta birharrapaketez gain, hegazti espezie bakoitzerako egindako fitxak ere kontsultatu daitezke. Fitxa bakoitzak Europako populazioen egoerari, joerei eta mehatxu-kategoriei buruzko informazioa jasotzen du. ●



[Albiste gehiago,  
webgunean](http://migrationatlas.org)